BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3575

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 3koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko Balorazio Batzordeko batzarkideak izendatzen dituena eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Agindua, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

Kontuan izanda 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren 10. artikuluak aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horretako batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez emango dela.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko osatuko den Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzea eta Batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Pello Mirene Gutiérrez Salceda jauna.

– Araceli de la Horra Gutiérrez andrea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Honako Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 3a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.